



**JOB 11-04-2017**

### **LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. Tituluko –biztanle-kopuru handiko udalerrien antolaketari buruzko– 127.1.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio onestea, besteak beste, lanpostuen zerrenda, langileen soldatak –Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontuarekin bat–, behin-behineko langileen kopurua eta araubidea, eta berariaz beste organo bati emanak ez diren langileei buruzko bestelako erabakiak.

Giza Baliabideetako Zuzendaritzak emandako txostenean jasota daude lanpostuen zerrendan lehenago onetsitako aldaketa batzuk, zeinak ez baitziren plantilla organikoan sartu. Hortaz, organo honek berriz ere onetsi behar ditu.

Aldaketa horiek zerikusia daukate honako lanpostu hauetan euskara jakiteko betebeharra –V3 mailakoa– ezartzearekin:

- Gobernu Gardeneko Alorra, 105300-1 lanpostua, Comunity Managerra  
Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorra:
  - 209200-1 lanpostua, Mugikortasuneko teknikaria
  - 209800-1 lanpostua, Ingurumen Heziketako erdi mailako tituluduna
  - 209800-2 lanpostua, Ingurumen Heziketako erdi mailako tituluduna
- Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorra, 105100-1 lanpostua, Kultura zerbitziburua.
- Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorra, Giza Baliabideak, 105800-2 lanpostua, Giza Baliabideetako eta Antolamenduko goi mailako teknikaria.

Aipatu txostenean, halaber, agerian jasota dago Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuan hutsik geratu dela 404700 lanpostua –Laneko Arriskuen Prebentzioko ofiziala, D mailakoa–, horren titularrak erretiroa hartu duelako, eta beharrezkoa dela lanpostuaren birmoldaketa, haren eginkizunak eta prestakuntza-baldintzak C mailari dagozkio-eta.

Hori guztia kontuan hartuta, lanpostuen zerrenda eta, zehazkiago, honako lanpostu hauek aldatzea ERABAKITZEN DA:

- 1.- Honako lanpostu hauei euskarazko hizkuntza-eskakizuna esleitzea, V3 mailarekin bat:
  - 105300-1 lanpostua, Comunity Managerra
  - 209200-1 lanpostua, Mugikortasuneko teknikaria
  - 209800-1 lanpostua, Ingurumen Heziketako erdi mailako tituluduna
  - 209800-2 lanpostua, Ingurumen Heziketako erdi mailako tituluduna
  - 105100-1 lanpostua, Kultura zerbitziburua
  - 105800-2 lanpostua, Giza Baliabideetako eta Antolamenduko goi mailako teknikaria.
- 2.- Birmoldaketa bidez amortizatzea 404700 lanpostua– Laneko Arriskuen Prebentzioko ofiziala, D mailakoa–, haren ordeztuz 307000 lanpostua – Laneko Arriskuen Prebentzioko ofiziala, C mailakoa–, honako osagarriekin: % 8,52 (lanpostu-osagarria), % 12 (maila-osagarria) eta % 10 (arrisku bereziko osagarria).»